

DIRU SARRERAK

Bezereok ordainketa bakarrean ordainduko dute baina hileroko kuota bat izango da. Hau da, hilabeteen behin bakarrik ordainduko dute baina gure zerbitzua erabiltzen jarraitu nahiko balute, hurrengo hilabeteen berriz ordaindu beharko lukete.

Gure diru-sarrerak sortzeko 3 modu ditugu.

1. Erabileragatik: guk erosketak bidaliko dizkiegu, produktuekin; beraz, gure zerbitzua erabiltzeagatik ordainduko dute.
2. Harpidetzeagatik: gure enpresan (web orrian) harpidetzeko aukera bat izango dute eta horrek abantaila batzuk suposatuko dizkiete (automatikoki bidaliko zaie hilabeteke erosketa eta gainera beherapen eta eskaintza bereziak izateko aukera dute)
3. Publizitatea: web orrian zehar, orriaren alboetan publizitatea egongo da; ez oso nabarmen, diskretu baina argi ikusten dela. Publizitateko enpresa hoi bitartez dirua lortuko dugu. Eta gainera, bakoitzak bere eskaera erosi baino lehen iragarki bat ipiniko dugu, eta eskeintzen ditugun aukerak ikusten dagoen bitartean, nohizbenka iragarki bat agertuko zaio (ez pantaila erdian, baina bai albo batean). Harpidetzen badira, iragarki hoiek ez zaizkie agertuko.

Prezioa:

- Harpidetzea: 14,99€ urtean

Kontuan izanda pertsona arrunt batek astean batez beste 60€ gastatzen dituela janaria erosketak egiten, guk 70€-ko prezio gutxi gora-behera oinarria jarriko dugu astero pertsona batentzat. Abiapuntua kantitate hau izanda. Hala ere, jende gehiagorentzako eskaera egiten badu, prezioak baxuagoak izango dira, ez beti proportzioan. Beraz:

1 pertsona → 279,99€ hilean (lau aste)

2 pertsona → 459,99€ hilean (lau aste)

4 pertsona → 909,99€ hilean (lau aste)

Gure prezioak beraz finakoak dira eskaintza bakoitzarentzat baina ikus daitekeen bezala, eskaintza bakoitzak prezio ezberdin bat du, dinamikoa izanda.

Hasierako inbertsioa:

Hasieran gauza gutxi batzuk beharko genituzke eta horretarako dirua behar dugu.

Zer behar dugu?

- Erosen ditugun produktuak gordetzeko, mantentzeko eta bere kaxetan osatzeko espazio bat (lokala ez oso handia ez oso txikia)
- Eskaintza hoiek banatzen hasteko garraioa

Nola lortuko dugu hasierako dirua?

- Bankuari kreditu bat eskatuko diogu (50.000€-ko kreditu bat). Kantitate honek urte baterako lokala eta garraioa ordaintzeko aukera emango digu.